



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

#### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

**Lan-poltsa bat eratzeko deialdiaren oinarriak onesteko erabakia. Lan-poltsa horren xedea da aldi baterako kontratatzea Erizain kategoriako langile lan-kontratudunak.**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko abenduaren 3an eginiko ohiko bileran (4/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Lehenengoa:* Lan-poltsa bat eratzeko lehiaketaren oinarriak onestea, helburua izanik aldi baterako kontratatzea ERIZAIN kategoriako langile lan-kontratudunak. Oinarriak eranskinean daude jasota.

*Bigarrena:* Argitara ematea erabaki hau eta beronen oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFÉren iragarki-taulan zein webgunean.

*Hirugarrena:* GUFÉko gerentea gaitzea deialdi hau izapidetzeko beharrezkoak diren ebazpenak eman ditzan.»

Bilbon, 2025eko abenduren 5ean.—GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**ERIZAINEN LANBIDE-KATEGORIAN ALDI BATERAKO APARTEKO LAN-POLTSA BAT ERATZEKO OINARRIAK****1. Arau orokorrak**

1.1. Erizainen lanbide-kategorian aparteko lan-poltsa bat eratzeko prozedurarako deialdia egiten da, beharrezkoak diren aldi baterako zerbitzuak emateko, EPOEren 55. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 70. artikuluan jasotako merezimendu-, gaitasun- eta efizientzia-printzipioekin bat etorriz.

1.2. Prozesuaren ondoren osatuko den aparteko lan-poltsa enplegu publikoaren eskaintzaren ondorioz GUFEn indarrean dagoen lan-poltsaren osagarri izango da, eta, gainera, ondorioz gabe utziko ditu enplegu publikoaren eskaintzan sortutako lan-poltsa hori ez den beste edozein.

1.3. Lan-poltsa moten arteko lehentasun-hurrenkera, jatorriaren arabera, une bakoitzean indarrean dauden GUFEn poltsak kudeatzeko irizpideetan zehaztutakoa izango da.

1.4. Lan-poltsa osatuko duten izangaien hautaketa-prozesuak oinarri hauetan xedatutakoa izango du aginduzko.

Hala ere, lan-poltsa handitu ahal izango da, hala badagokio, beste inskripzio-epe bat irekiz, GUFEn aldi baterako kontratazio-beharren arabera. Lan-poltsa handitzeko inskripzio-eparean irekiera Lan Poltsen Jarraipenerako Batzordeari jakinaraziko zaio, haiek azter dezaten. Irekierak bata bestearen atzetik egin ahal izango dira, aldian-aldian.

1.5. Prozesuaren ondoren osatuko den aparteko lan-poltsa une bakoitzean indarrean dauden GUFEn poltsak kudeatzeko irizpideetan xedatutakoa izango dute aginduzko. Deialdiaren oinarriak web-orri honetan kontsultatu ahal izango dira:

<https://ifas.bizkaia.eus/listado-bolsasTrabajo.asp?idioma=eu&idpagina=TXOBSFERQLSOVSHLUGPCSMEXTT PWZIMUGWJ>

1.6. GUFEn zerbitzurako lan-kontratuko langileen aparteko lan-poltsak bete beharko ditu datu pertsonalen babesari buruzko legerian horrelako euskarrietarako xedatutako eskakizun eta baldintza guztiak, zeinak ezartzen baitituzte abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, eta Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorra (DBEO), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena.

**2. Hautagaien betekizunak**

2.1. Onartuak izateko, izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo
- b) Europar Batasuneko gainerako estatuetako kide bateko nazionalitatea izatea, edota Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenak direla bide langileen zirkulazio-askatasuna aplikatu daitekeen estatu bateko nazionalitatea. Gainera, Espainiako edo Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte har dezakete, nazionalitatea edozein dutela ere, bai ere Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenak direla-eta langileen zirkulazio-askatasuna ezar daitekeen estatu bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek, dagokion hitzarmenak hala jasotzen badu eta zuzenbidez banatuta ez badaude. Halaber, baldintza berberekin har dezakete parte haien ondorengoek eta haien ezkontideen ondorengoek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo haien kontura bizi diren adin horretatik gorakoak.  
Espainiarrek dituzten baldintza berberetan iritsi ahal izango dira administrazio publikoetara aurreko lerroaldeetan adierazitako atzeritarrak eta Espainian legezko bizilekua duten atzeritarrak.
- c) Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.
- d) Dagokion izendapenaren ondoriozko eginkizunak betetzeko behar besteko gaitasun funtzionala izatea.



- e) Lan-kontratuko langile finkoa ez izatea lortu nahi den postuaren kategoria berean.
- f) GUFEn, kategoria berean, indarrean dagoen EPEaren prozesuaren ondoriozko lan-poltsan ez egotea.
- g) Diziplina-espeditate batez edozein administrazio publikotako zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako edozein organo konstituzional edo estatutarioren zerbitzutik berezita ez egotea, ezta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikorako erabat desgaituta edo berezita egon ere, lan-kontratudun langileen kasuan bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzeke. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek ere egiaztatu beharko dute ez dutela desgaituntzarik edo horren egoera baliokidean ez daudela, eta ez dutela jaso diziplina-zehapenik edo baliokiderik, euren estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten dienik.
- h) Ondoko titulazio hauetako edozein edukitzea: Erizaintzako diplomaduna, Erizaintzako gradua edo baliokidea.  
Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, beharrezkoa izango da tituluen homologazioa egiaztatzen duten agiriak edukitzea.

2.2. Arestian aipatu diren baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean beteta eduki behar dira, eta aldi baterako lan-kontratua egiten den momentura arte iraun beharko dute.

2.3. Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa eskatu ahal izango da jardun profesionala adingabeen eremuan eskatzen duten destinoetarako.

### 3. Eskabideak aurkeztea

3.1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak egutegiko hogeita hamar (20) eguneko epearen barruan aurkeztuko dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunaz gero zenbatzen hasita. Eskabide-orriak, eskatutako dokumentazioarekin batera, eskaera elektronikoki bidez aurkeztuko dira adierazitako egoitza elektronikoa, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hau da: [www.ifas.bizkaia.eus](http://www.ifas.bizkaia.eus), atalak «Lan-poltsak/Lan-poltsa subsidiarioak/Indarrean dauden lan-poltsatoko deialdiak/Erizaina» eta «Web eskabidea» botoia.

<https://ifas.bizkaia.eus/listado-bolsasTrabajo.asp?idioma=eu&idpagina=TXOBSFERQLSOVSHLUGPCSMEXYXTPWZIMUGWJ>

Aurrekoaz gain, halaber egongo da erabilgarri eredu ofizial eta normalizatu bat, eranskin gisa gehitu dena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

3.2. Beherago 3.4 apartatuan xedatutakoa gorabehera, eskabide-orriarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

- Erizaintzako tituluaren edo hura lortzeko ordaindutako eskubideen kopia.

Gainera, honako hauek aurkeztu beharko dira, baldin eta eskabidean alegatu badira:

- Beste administrazio publiko batzuetan izandako esperientzia profesionalaren aurretiazko zerbitzuen ziurtagiriaren edo ziurtagirien kopia (1. ERANSKINA).

GUFEn izandako esperientzia profesionala ofizioz zenbatuko da.

- Hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiriaren kopia, baldin eta datu hori ez badago egiaztatuta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen badira apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean, zeinaren bidez arautzen baita euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzeetik salbuesteko prozedura, izangaiek dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, baldin eta salbueste hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ageri ez bada.



Agiri guztiak jatorrizkoak edo kopia kautotuak izan beharko dira, edo bestela, QR kodearen bidez egiaztatu daitezkeenak.

3.3. %33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua aitortuta dutela adierazten dutenek eskabidea aurkezteko unean egiaztatu beharko dute hori, Bizkaian bizi direnek izan ezik. Nolanahi ere, honako kasu hauetan joko da baldintza hori betetzen dela: ezintasun iraunkor osoagatik pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo desgaitasunagatik erretiro-pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.

3.4. Eskabidean alegatutako merezimenduak besterik ez da baloratuko. Ebaluazio Batzordeak ez ditu kontuan hartuko alegatutako baina justifikatu gabe dauden merezimenduak.

Titulua, NAN/AIZ, merezimenduen egiaztagiria eta, hala badagokio, desgaitasun-ziurtagiria (den-denak jatorrizko agiriak) Aukeraketa eta Hornikuntza Arloan aurkeztu beharko dira, nahitaez, gerta daitekeen lan-kontrataziorako lehen deialdiari erantzuteko. Agiriok ez aurkezteak edo faltsuak izateak berekin ekarriko du hala konfiguratutako lan-poltsan parte hartzeko eskubidea galtzea. Horrez gain, izangaiak bere gain hartu beharko ditu dokumentu bat faltsutzeagatik erarortzen zaizkion erantzukizun legalak.

3.5. Langileak hautatzeko eskumena duen Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak interesdunei buruz dituen datuen gainean. Horretarako, Bizkaia Nodoaren elkarreragingarritasun-zerbitzuak erabiliko ditu, salbu eta egiaztapena datu-bitartekaritzako sistemen bidez egitea ezinezkoa bada edo interesdunak horren aurka dagoela espresuki adierazten badu; halakoetan, eskatutako salbuespena justifikatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera.

3.6. Izangaiak lan-poltsak kudeatzeko irizpideen arabera eskabidean hautatzen dituzten aukerak gorabehera, lan-poltsa osatzen duten pertsonen behin betiko zerrenda GUFEn iragarki-taulan (fisikoa zein birtuala) argitaratu ondoren, izangai bakoitzak hamar egun balioduneko epea izango du, lan-poltsa argitaratu eta biharamunetik zenbatuta, lanean hasteko prest dagoen ala ez adierazteko, ifas.registro@bizkaia.eus helbidera idatziz; hala egin ezean, aldi baterako baja eman zaio lan-poltsan, harik eta baldintza hori bete arte. Era berean, lanerako prest ez daudela adierazten duten pertsonen aldi baterako baja emango zaie, GUFEn lanerako prest daudela jakinarazi arte.

#### **4. Ebaluazio Batzordea**

4.1. Ebaluazio Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

— Presidentea:

- M.<sup>a</sup> José Larrinaga Artetxe, Trebakuntza Arloko burua.

— Batzordekideak:

- Amagoia Gorozika Bidaurrazaga, Laguntza Zerbitzuen Arlo Teknikoko burua.
- Antón Dublang Arsuaga, Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikaria.
- Joseba Lekue Oleagordia, IVAPeko ordezkaria.
- Joseba Mikel Larrazabal Alvarez, Elorrio Laguntza-zentroko Erizaina.

— Idazkaria:

- Fidel Martínez Ruiz, legelari aholkularia.

4.2. Ebaluazio Batzordea ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun baldin eta gutxienez batzordeburua eta idazkaria —edo, hala bada, haien ordezkioak— eta kideen erdiak ez badaude.

Batzordeak eskumena izango du deialdi honen aplikazioaren ondorioz sortutako gorabehera guztiak aztertu eta interpretatzeko, bai eta aurreikusi gabeko kasuetan nola jardun erabakitzeke ere.



4.3. Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Ebaluazio Batzordearen egoitza GUFeko bulegoetan egongo da.

4.4. Batzorde horretan parte hartzeagatik egiten diren bertaratze, lankidetzeta eta abarrekin lotutako ordainak arautzeko, kontuan hartuko da zer xedatzen duten Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, eta abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuak, zeina bere artikulua bakarrean eguneratzen baitu ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko dekretua hirugarren aldiz aldatzekoak (2006ko ekainaren 28ko EHAA, 122. zenbakia).

## 5. Baloratu behar diren merezimenduen egitura eta sailkapena

Alegatutako merezimenduak zenbatzeko erreferentziako muga-eguna beti ere izango da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den data.

Hautaketa-prozesua merezimenduen ebaluazio-fase bakarrean egituratuko da, baremo honen arabera:

### A. Lan-esperientzia

- Edozein administrazio publikotan Erizain kategorian (A taldea, A1 eta A2 azpitaleak) egindako zerbitzuengatik: 0,125 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere 7,5.

Horretarako, administrazio publikotzat joko dira arau hauetan jasotako enteak: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testuategina, 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikulua, eta Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legea, 3.2 eta 3.4 artikulua. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak zenbatuko dira, baina inola ere ez aurreko artikuluetan jasota ez dauden zuzenbide pribatuko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.

Era berean, egoki betetze aldera 20.1c) artikuluan xedatzen duena martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina, kontuan hartuko da, esperientzia profesionala baloratzeko, izangaia zenbat denbora egon den eszedentzia-egoeran senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik, zenbat denbora egotz dakiekeen lanaldi-murrizketei edo baimenei, baldin aurreikusitako xedetzat badute amatasuna edo aitatasuna babestea edota bizitza pertsonal, familiar eta laboralaren kontziliazio erantzukidea sostengatzea, eta enplegatuek zenbat denboratan erabili dituzten genero-indarkeriaren ondoriozko baimenak.

### B. Euskara

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko, baremo hau hartuko da kontuan:

- A2B1: 0,375 puntu.
- B1 B1: 0,525 puntu.
- B1 B2: 0,525 puntu.
- B2 B2: 0,750 puntu.
- B2 C1: 0,900 puntu.
- C1 C1 edo goragokoa: 1,500 puntu.

Bizkaiko Foru Aldundian edo GUFEn hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta daukatenek ez dituzte berriro egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez



eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daukateneke ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak GUFeri berariazko baimena emango dio erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Nolanahi ere, interesdunak aukera du Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan bere datuak kontsultatzeko, honako esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Hala ere, erregistro horretan agertzen ez diren euskarazko titulu edo ziurtagiri guztiak aurkeztu beharko dituzte baldin baliokidetuta badaude azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez euskararen jakite-maila egiaztatzekeo tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzen eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen baitira.

Jarduten badute apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean, zeinaren bidez arautzen baita euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzekeo salbuesteko prozedura, izangaiek aurkeztu beharko dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzekeo behar den ziurtagiri akademikoa, non eta salbueste hori ez dagoen jasota aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan.

## **6. Izangaien lan-poltsak egitea**

6.1. Eskabideak aurkeztekeo epea amaituta, eta Ebaluazio Batzordeak izangaiek behar bezala alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratu ondoren, GUFeko Gerentziak onetsi egingo ditu onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak. Baztertuen kasuan, baztertekeo arrazoia ere zehaztu beharko da. Zerrenda horiek GUFeren iragarki-oholean eta webgunean argitaratekeo agindua emango da.

Interesdunek 10 lan eguneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, bertan jasotako datuak zuzendu edo haien inguruko alegazioak aurkeztekeo. Erreklamazioetan ezingo da ez hizpidera ekarri ez egiaztatu eskabidean alegatutako beste merezimendurik.

Epe hori amaituta, Ebaluazio Batzordeak txostena egingo du interesdunek aurkeztutako alegazioen gainean, eta Erakundeko Gerentziari proposatuko zaio aldi baterako lan-kontratudun langileak kontratatekeo aparteko lan-poltsa behin betiko onesteko ebazpena. Izangai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera antolatuko da lan-poltsa.

6.2. Azken puntuazioa lortutako puntuazio guztien batura izango da, deialdi honen bosgarren oinarrian ezarritako baremoaren arabera; hala ere, geroago lan-poltsen birbaremazioa egin ahal izango da, lan-poltsak kudeatekeo irizpideen arabera.

6.3. Berdinketarik egonez gero, une horretan indarrean dauden lan-poltsak kudeatekeo irizpideetan ezarritakoa beteko da.

6.4. Gero, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaie emakumeak %40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren 21. artikuluaaren arabera. Salbu eta, beste izangaiaren kasuan, sexu-bereizkeriarekin lotuta egon gabe neurria ez aplikatzea justifikatzen duen inguruabarririk badago, hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kide izatea.

6.5. Berdinketak bere horretan badirau, izangairik zaharrenaren alde egingo da.

6.6. Berdinketa hausten ez bada, izangaien abizenen hurrenkera alfabetikoari helduko zaio, letra jakin batekin hasita, zehazki, Lurralde Politikako eta Administrazio Publiko Estatu Idazkaritzaren azken ebazpenak (oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean edo kontratazio-poltsa handitzeko birbaremazioa eta/edo epea irekitzea zehazten duten ondorengo argitalpenetako edozeinetan Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako azkena) ezartzen duen letrarekin; ebazpen horren bidez argitaratu egiten da Estatuko Administrazioaren Zerbitzurako Langile Sartzeko Araubide Orokorrak aipagai duen zozketaren emaitza.



6.7. Prozesu horren ondoriozko zerrenda GUFEn iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, eta indarrean egongo da harik eta aurrekoa zabaltzen edo ordezten duen aparteko poltsa berri bat eratzeko oinarriak argitaratu arte eta/edo, nolana ere, EPEko hautaketa-prozesu berri baten ondoriozko lan-poltsa berriak eratu arte.

## **7. Ondoriozko lan-poltsaren birbaremazioa**

7.1. Lan-poltsaren ondoriozko zerrenda indarrean dagoen bitartean, haren birbaremazio partikularra egin beharko da, aldi-an-aldian. Prozesu berezi hori Gerentziaren ebazpen bidez hasiko da, eta eraginkortasun- eta arintasun-printzipioak kontuan hartuta, GUFEn emandako zerbitzuak baino ez ditu kontuan hartuko, langileak sustatzeko eta fidelizatzeko helburuarekin.

7.2. Lan-poltsen Jarraipenerako Batzordeak lan-poltsak zabaltzeko, birbarematzeko eta funtzionatzeko prozesuen berri izango du eta haiei buruzko oharra egin ahal izango ditu, gardentasunaren, parte-hartze sindikalaren eta kudeaketako erantzukidetasunaren printzipioen babesean, 11/2022 Legearen 6.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

## **8. Izangaien lan-poltsa handitzea**

8.1. GUFeko Gerentziak, birbaremazio-prozesua irekitzearekin batera, izena emateko epe berria irekitzeko agindu ahal izango du, aparteko kontratazioko lan-poltsa handitzeko.

8.2. Aparteko kontratazioko lan-poltsa handitzeko fase honetan, une bakoitzean indarrean dauden lan-poltsak kudeatzeko irizpideetan ezarritako birbaremazioari dagokion lanbide-esperientzia baino ez da baloratuko.

8.3. Lan-poltsen Jarraipenerako Batzordeari jakinarazi eta aztertu ondoren, GUFEn Gerentziak aparteko kontratazioko lan-poltsa modu iraunkorrean irekita egoteko agindua eman ahal izango du, inskripzio-eskaera berriak jaso daitezzen.

8.4. Lan-poltsaren barruko hurrenkera izangaiaren merezimenduen guztizko puntuazioak ezarriko du, lan-poltsan noiz sartu den kontuan hartu gabe.

## **9. Azken arauak**

9.1. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztian, honako arau hauetan ezarritakoarekin bat egingo dira hautaketa-probak: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina; abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa; garapen-legeria eta aplikatu beharreko gainerako xedapenak.

9.2. Deialdia, deialdiaren oinarriak eta deialdiaren eta Ebaluazio Batzordearen jarduketan ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek; horretarako kasuak eta forma ezarrita daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

9.3. Deialdi honen kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke GUFeko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegietatik txandaren arabera dagokionean, bi hileko epean. Ezingo dira errekurtso biak batera jarri.

**ERANSKINA / ANEXO****Aldi baterako lan-poltsa - Onarpen eskabidea / Bolsa de trabajo temporal - Solicitud de admisión**

## 1. Deialdia / Convocatoria

Taldea eta azpitaldea / Grupo y subgrupo	Kategoria / Categoría
--	-----------------------

## 2. Norberaren datuak / Datos personales

Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellido	Izena / Nombre	
NAN-ANZ / DNI-NIE	Jaioteguna / Fecha nacimiento	Sexua / Sexo E./M. G./H.	
Helbidea: kalea edo plaza, zk., solairua / Dirección: calle, plaza, nº, piso	PK / P.C	Herria / Localidad	Lurraldea / Territorio
Telefonoa / Teléfono	Posta elektronikoa / Correo electrónico		

## 3. Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria

Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa ekartzen dut / Aporto la siguiente titulación exigida en las bases específicas
---

## 4. Euskara / Euskera

Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna / Perfil acreditado						
A2B1	B1B1	B1B2	B2B2	B2C1	C1C1	C2C2

## 5. Legez aintzatetsitako ezgaitasuna duten langileak / Personal que ostenta la condición legal de discapacitado. (Egokitzapenik egin behar da lanpostuan? Zehaztu zeintzuk eta eman arrazoia / Especificue, en su caso, el motivo y adaptaciones del puesto que considere necesarios)

## 6. Bizkaiko GUFEn emandako zerbitzuak / Servicios prestados en IFAS Bizkaia

Bai, GUFEn dagokien kategorian zerbitzua eman dut, eta eskatzen dut aipatutako zerbitzuak ofizioz ziurtatu daitezke / Sí, he prestado servicios en la categoría correspondiente en IFAS y solicito que me sea expedida de oficio la certificación de dichos servicios
---

Beheko sinatzaileak eskabide honetan adierazten den aldi baterako lan-poltsan onartua izatea eskatzen du, eta eman dituen datuak benetakoak direla adierazten du; baita deialdiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela ere. Halaber, konpromisoa hartzen du eskaera honetan jarritako datu guztiak agiriaren bidez frogatzeko.

La persona abajo firmante solicita ser admitida en el proceso de constitución de bolsa de trabajo temporal a que se refiere la presente instancia y declara que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en la convocatoria, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma

**Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen kudeatzailea / Gerente del Instituto Foral de Asistencia Social**

15/1999 (DPL) Legea betetzeko, jakinarazten dizugu eskabide honetan agertzen diren datuak norberaren datuen fitategi automatizatuan jasoko direla. Fitategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea da, baita prozesutik sortuko diren lan-poltsak kudeatzea ere. Lan-poltsak beste administrazio batzuei utziko zaizkie eskatuz gero. GUFeko kudeatzailea da fitategiaren arduraduna, beraz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko, organo horretara jo beharko duzu (Ugasko bidea 5bis - 1. solairua 48014 Bilbo).

En aplicación de la Ley 15/1999 (LOPD) le informamos que los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo, así como la correspondiente a las bolsas de trabajo que se deriven del mismo y que serán, en su caso, cedidas a otras administraciones públicas previa solicitud por éstas. La responsable de este fichero es la Gerente del IFAS, y ante ella podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y cancelación (C/ Camino de Ugasko 5 bis, 1-48014 Bilbao).



Merezimenduak / Méritos

1. Norberaren datuak / Datos personales

1. deitura	2. deitura	Izena
1er. apellido	2º apellido	Nombre

2. Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

(Soilik adierazi zein administrazio publikotan egin duzun lan / Relacionar únicamente las Administraciones Públicas en las que se han prestado servicios adjuntando los correspondientes certificados de servicios previos)

1)
2)
3)
4)
5)
6)
7)
8)
9)
10)
11)
12)
13)
14)
15)
16)
17)
18)
19)
20)

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma



## Interesatuarentzako jarraibideak

### Orokorrak

- Makinaz edo boligrafoz bakar-bakarrik eta letra haundiak edo inprenta motakoak erabiliz idatz ezazu.
- Zehaztasunak ale guztietan argi irakur daitezkeela berma ezazu.
- Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.
- Inprimakia izenpetu egin behar duzu.

### Derrigorrezko dokumentazioa

Eskaera-orriari ondokoak batu beharko zaizkio nahitaez:

- Nortasun agiri nazionalaren edo, atzerritarra izanez gero, horren baliokidea den agiriaren fotokopia.
- Deialdiaren oinarrietan eskaturiko titulua edo hura lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- Alegatutako merezimenduen zerrenda. Soilik adierazi behar dira lan egindako administrazio publikoak.
- Lan egindako administrazio publikoen ziurtagiria (GUFEn izan ezik) deialdiko kategorian.
- % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortuta izatearen egiaztagiria, Bizkaian bizi direnena izan ezik.

Dagoeneko datuak GUFEn jasota dituzten pertsonak, Erakunde honekin kontratu-lotura eduki dutelako, ez dute aurkeztu beharko ez NANA/AIZA, ezta titulua ere. Era berean, GUFEn lan egin dutenek eskabide-orrian adierazi beharko dute, dagokion ziurtagiria ofizioz bidal dadin.

## Instrucciones para la persona interesada

### Generales

- Escriba solamente a máquina o con bolígrafo sobre superficie dura, utilizando mayúsculas o tipo de imprenta.
- Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.
- Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.
- No olvide firmar el impreso.

### Documentación obligatoria

A la instancia se acompañará necesariamente:

- Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o documento equivalente en caso de ser extranjero.
- El título o los derechos abonados para obtenerlo, exigido en las bases de la convocatoria.
- Relación de méritos alegados. Únicamente deben citarse las administraciones públicas en las que se han prestado servicios.
- Certificado de servicios prestados en las diferentes Administraciones Públicas (excepto IFAS) en la categoría de la convocatoria.
- Acreditación de tener reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33% salvo residentes en Bizkaia.

Las personas cuyos datos consten en el IFAS por haber tenido relación contractual con este Instituto Foral no deberán presentar ni el DNI/NIE ni el título. Asimismo, quienes hayan prestado servicios en el IFAS deberán indicarlo en la solicitud para que el certificado correspondiente sea emitido de oficio.